

Andoaingo

Herri Programa

ehbildu

ehbildu

Aurkibidea

| | |
|--|----|
| 1. Gobernatzeko prest..... | 3 |
| 2. Herri zaintzailea helburu..... | 4 |
| 3. Euskara..... | 5 |
| 4. Berdintasuna..... | 5 |
| 5. Zaintza lanak..... | 5 |
| 6. Kultura..... | 6 |
| 7. Hezkuntza..... | 8 |
| 8. Kirola..... | 9 |
| 9. Enplegua..... | 9 |
| 10. Ongizatea..... | 10 |
| 11. Parte hartzea..... | 10 |
| 12. Gazteria..... | 10 |
| 13. Energia..... | 10 |
| 14. Etxebizitza..... | 10 |
| 15. Irisgarritasuna..... | 11 |
| 16. N1 – A15 lotunerako CII proiektua..... | 11 |
| 17. Udalaren berrantolaketa..... | 11 |

GOBERNATZEKO PREST

Lau urte dira Andoaingo EHBildu hauteskundeak aise irabazita ere udal gobernutik atera zela. Gure sorretatik udal hauteskunde guztiak irabazi ditugu. Bi agintaldi eman genituen gobernuan eta azken hau PSE-EE eta EAJ-PNVren arteko akordio baten ondorioz oposizioan. Andoaindarrek beraz, ezagutzen dute zein den EHBilduren gobernatzeko estiloa. Lanean ezagutu gaituzte.

Gure eredia eta baloreak ezagunak dira; entzuten dugu, eredu parte hartzailea garatzen duug, euskaldunak eta esukalatzaleak gara, parekidetasuna sustatzen dugu eta feministak gara, eta andoaindar guztiak jartzen ditugu gure politiken erdigunean

Hemen aurkezten dugun lan taldea datozen urteotan Andoain gobernatzeko helburuarekin egin dago. Andoaingo bizitza sozial eta kulturean dabilen pertsonen osatuta dago. Hauekin batera, orain arte udalgintzan eta herrigintzan egon diren EHBilduko kideak ere egongo dira. Pozik eta gogotsu gaude, erronkari aurre egiteko prest.



HERRI ZAINZAILIA HELBURU

ASKO HITZ EGITEN DA ZAINZAZ, BAINA ASKOZ ERE GUTXIAGO EGIN. ZAINZTA BERE ZENTZURIK ZABALENEAN GARATUKO DUEN ANDOAIN HERRIA NAHI DUGU; PERTSONAK ETA HAUEN BEHARRAK ERDIGUNEAN JARRIAZ, HAUEI BEGIRAKO POLITIKA PUBLIKOAK JARRI BEHAR DIRA MARTXAN. ARLO ETA ESPARRU GUZTIETAN, UDAL DEPARTAMENTU GUZTIETAN.

Azken urteotan norabide bateraturik gabe ari da Udala. Departamentu bakoitzean besteak zer egiten zuen kontuan hartu gabe egin da aurrera, zinegotzi edo gobernuko alderdi bakoitzaren interesen arabera. Joera arriskutsu honekin amaitu behar dugu lehenbailehen. Udala osoa norabide berean lanean jarri behar dugu. Andoainek bere gaitasun asoziatiboan eta dinamikan du bere altxor nagusia. Herri bizia dugu, kirol, kultur edo gizarte ekimeneko taldeei esker egunero eta astebururo ikusi dezakegu herri bizi bat dugula. Herriko enpresek eta tokiko merkatariek egunero pizten dute Andoain.

Gure herriak dituen erronkak handiak dira. Elkarlanetik aurre egin behar zaio. Elkarlana eta elkarzaintza. Gure herria zaindu, eta batez ere zainduko gaituen herri bat eraikiaz, komunitatea eraikiz.

ehbildu

EUSKARA

- Iritsi berrientzat euskara saioak martxan jarriko ditugu.
- Erabilpena sustatzeko estrategiak garatuko ditugu.

BERDINTASUNA

- Emakumeen etxea sortuko dugu: gure antolaketa, dinamika eta indarraren ezaugarri izango dena, gure arteko aliantzak eraikiz.
- Emakumeon partehartze soziopolitiko sustatzeko eremuak sortu eta bultzatuko ditugu.
- Biktimen erreparazioan eta prebentzioan hasitako bidean sakonduko dugu, proposamen berriak eginez.
- Berdintasun politikak udalaren jardun guztietara eramango ditugu III. berdintasun planarekin eta herrian berdintasun irizpidea landuko dugu.

ZAINTZA LANAK



ehbildu

- Gaur egun zaintzak suposatzen duen arrakala, eztabaidaren erdigunean kokatuko dugu eta honen berrantolaketan urratsak eman daitezzen.
- Zaintza HerriLab estrategia: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberri Fundazioak gidatzen duen ekimen honekin atxikitzea proposatuko dugu. Ekimen honen bidez zainketen tokiko ekosistemak garatzea sustatzen da, etxean bizi diren eta ahultasun- eta mendetasun egoeran dauden adinekoen arreta eta zainketa hobetzen da.
- Zainketen tokiko ekosistema garatu: Osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak integratuko dituen erabiltzaileen eta udalerraren premietatik abiatuta. Garapen kolektiboa eta partehartzailea den ekosistema; erakunde , zaintza sektore eta komunitate eragileekin elkarlanean sortua. Tokiko mailan integratzen ditu, erabiltzaileen eta udalerraren premietatik abiatuta, osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak. Gizarte ekimena eta ekimen pribatua lotzen ditu, arreta eta zainketa ibilbideen diseinuan eta kudeaketa pertsonalizatuan.
- Udal dirulaguntzak sustatuko dira egoera zaurgarrietan edota bakardade ez-aukeratuan dauden edozein adineko pertsonak detektatzeko, eta beharrezkoa denean, eurekin lanketa bat egitea, euren ongizatea bermatzeko.

KULTURA

Kultura arloari dagokionez, EH Bildutik Kultura gizarte eraldatzailearen motor modura ulertzen dugunez, partaidetza soziala eta herriko dinamika indartuko ditugu, aberastasun kulturala lortzeko asmoz.

Horretarako, udala eta herriko kultur talde eta elkarten arteko harremanak eta komunikazioa naturala, gertua eta denboran zehar jarraitua izan dadilaren alde egingo dugu lan.

Elkarlanerako dinamika bateratu batean oinarrituta guztion iritziak eta ekarpenak balorean jarriaz.

Legealdi berrirako bi proiektu izar bereiztuko ditugu:

ehbildu



- **Udal liburutegia errealitatea bihurtzea:** Liburutegia ikuspegi berri eta ireki batetik egindako apostu kulturala izango da:
 - Liburutegia liburuak uzteko eta azterketa garaian ikasteko leku bat baina askoz ere gehiago da eta azken urteotan behin eta berriro jarri dugu liburutegi berriaren beharra mahai gainean. Andoaingo liburutegiak ezin diolako erantzun gaur egungo beharrari. Herritarrentzat leku bizi bat da, irakurleentzat, ikasleentzat eta oro har komunitate osoarentzat.
 - Herritarrek rol aktiboa izan dezaten: Informazioa ezinbestekoa da herritarrek gizartean rol aktiboa izateko.
 - Egunerokoan erabiltzaileen beharrak: Komunitatea, entzute aktiboaren bitartez erabiltzaileei euren beharren arabera zerbitzuak eskainiz.
 - Liburutegiak herriaren errealitate eta beharrei erantzun behar die: Gizarte-harremanak, kultura-aniztasuna, parte-hartzea, kulturartekotasuna, aniztasun funtzionala, sorkuntza eta garapen pertsonala hobetzeko aukera emanez.

ehbildu



- **Sormen gunea:** Musika, antzerki, kultur talde eta elkarte ezberdinentzat sorkuntzarako gunea sortuko dugu Opuia eraikinean. Bertan, gizarte dinamikari erantzungo zaio eta elkarlanean arituko gara proiektu komunitarioa garatzen. Gune honetan, kulturalki herri mailan dugun potentziala zaintzea eta indartzea helburutzat daukagula.

HEZKUNTZA

- Herritarrei heziketa publikoa, euskalduna eta kalitatezkoa eskaintzeko eragingo dugu.
- Andoaingo hezkuntza eremuan balore eta proiektu amankomunak lantzeko bitartekoak jarriko ditugu.
- Ikastetxeekin harremanak sakondu eta ditugun aukeren eta eskuduntzen arabera, arazoei irtenbideak adosten jarraituko dugu.

ehbildu

KIROLA



- Kiroldetikoko bigarren pista egingo dugu. Honekin batera herriko taldeen eta herritarren behar berriei aurre egiteko azpiegitura berriak egingo ditugu.
- Kirol elkarteei, tresna, bitarteko eta baliabideak gehituko dizkiegu beraien jarduna hobeto burutu ahal izateko.
- Eskola kirola, gaur egungo beharretara egokituko dugu, horretarako beharrezkoak diren baliabideak jarritz.

ENPLEGUA

- Garapen Agentziari bultzada eman.
- Enplegu-planak kolektibo zaurgarriei zuzendu.
- Ekintzailetasunari bidea erraztu.

ehbildu

ONGIZATEA

- Arrakala sozialarekin amaitzeko arreta handitzea.
- Osasun mentalari dagokion garrantzia ematea, proiektu berritzaileen eskutik.

PARTE HARTZEA

- Auzoz auzo egitasmoa.
- Andoaingo App-ari erabilera egokia eman.
- Herri kontsultak egiteko araudia onartu.

GAZTERIA

- Oinarrizko udal gazteria politika garatzea.
- Emantzipazioa, enplegua, herritartasun aktiboa... zeharlerroak martxan jartzea.

ENERGIA

Aldaketa klimatikoaren ondorioak geroz eta gertuago nabari diren testuinguru honetan, energiaren burujabetza eta hauen jatorri berriztagarria sustatuko dituzten planak aurrera eramatea ere erronka nabaria da. Horretarako:

- Andoaindik, bai eraikin publiko, bai herritaren etxebizitza eta enpresen energia kontsumoaren murrizketa sustatuko duten planak bultzatuko ditugu, besteak beste: isolamendu termikoa bai fatxada edo estalkietan, leihoen aldaketak...
- Autokontsumorako izango diren eta iturri berriztagarria duten sistemen instalakuntzak bultzatuko dira, esate baterako, panel fotovoltaikoak edo biomasa.

ETXEBIZITZA

- Andoainen etxebizitzaren gaiari lehentasuna emango diogu herriko eremu ezberdinetan, baina batez ere Etxeberrietako eta Ama Kandidako eremuetako planak bideratuko ditugu blokeo egoera horretatik ateratzeko.

ehbildu

IRISGARRITASUNA



- Udal eraikinetan eta kaleetan bermatzeko urratsak ematea, Ackzesiblerekkin elkarlanean.
- Mugikortasun plana lantzea eta aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea.

N1-A15 LOTUNERAKO CII PROIEKTUA

- Egitasmoa gerarazteko konpromisoa.
- Proiektu alternatiboa idazteko konpromisoa.
- Kontsulta-loteslea egin.

UDALAREN BERRANTOLAKETA

- Udalaren funtzionamendua modernizatu eta hobetu; burokrazia gutxitu, eta herritarrek zerbitzu publiko duin eta eraginkorragoa jasotzeko helburuarekin.
- Departamentuen arteko zeharlerrotasuna eta funtzionamendu efizientea lortu.